

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskarabideak 650.000 euro bideratuko ditu 2017an toki-erakundeetan euskararen erabilera sustatzeko

Eskaerak egiteko epea ekainaren 29an bukatuko da

Asteartea, 2017.eko maiatzak 30

Euskarabideak laguntzen deialdia jarri du abian, 2017an toki-erakundeek euskara sustatzeko zein erabiltzeko antolatzen dituzten jarduerak finantzatzeko: 650.000 euro dira guztira. Laguntzen zenbatekoa igo da 2016 urtearekin alderatuta, 2016ean 300.000 euro bideratu baitziren.

Deialdiaren oinarriak gaur, asteartean, maiatzaren 30ean, [argitaratu](#) dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta laguntzak eskatzeko epea ekainaren 29an amaituko da. Laguntzak telematikoki aurkeztuko dira www.navarra.es webguneko Zerbitzuen Katalogoko [fitxa](#)ren bidez.

Hainbat jarduera-mota finantzatuko dira:

Toki-erakunde eskatzailearen eremuan sortutako programak, 350.000 euroko aurrekontua.

- Euskara kultur eta gizarteko bizitzan erabiltzeko programak eta proiektuak: literatur lehiaketak, zinema, ipuin-kontalariak, hitzaldiak, bertsolaritza, euskara ikasteko programak, erakusketak, ikerketen argitalpena eta abesti-emanaldiak.

- Euskararen presentzia sustatzeko ekimenak: udaleko aldizkari edo buletinen idatzizko argitalpenak eta kale, bide edo eraikinak errotulatzeari.

- Euskaraz emandako prestakuntzako tailerrak edo ikastaroak.

Euskarako zerbitzu teknikoaren sareak egindako proiektuak eta zenbait toki-erakunderen artean elkarrekin egindakoak. Proiektu horietarako 200.000 euro erabiliko da.

Euskarako zerbitzu teknikoak sortzea eta egonkortzea. Modalitate horretarako 100.000 euro bideratuko dira.

Diru-laguntza horiek eskuratu ahalko dituzte euskara erabiltzeko eta sustatzeko programak onartzen eta garatzen dituzten toki-erakundeek.

Aurtengo deialdia Nafarroako Parlamentuak 2017ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan onartu zuen partida batetik ordainduko da, komunikabideetan euskara sustatzeko laguntzena.